


NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Panem et circenses

Erroma, K.o. 100. urte inguruan. Juvenal poetak zera jaso zuen bere X. Satiran: “Aspaldian, zehazki botoa nori saldu daukagunetik, herri honek politikarekiko interesa galdu du. Lehen buruzagitzak, sortak, legioak eta, finean, dena ematen zuen, baina orain agintariei egiten uzten die eta soilik bi gauza desio ditu irrikaz: ogia eta zirkuko jokoak”.

Erromako agintariak askoz lehenago hasi ziren ogia eta zirkua herritarrei eskaintzen; K.a. 140 urtean erabaki zuten lehenengoz behartsuenei garia prezio askoz merkeagoan saltzea. Janaria merkatu edo oparitzeak eta entretenimendua eskaintzeak herritarrak alienatzea zekarren Juvenalen ustez, haien espiritu kritikoa apaltzea, agintarien eskuzabaltasun faltsuarekin herria asebetetzea. Eroskerian eta populismoan oinarritutako estrategia hori boterea eskuratzeko bide eraginkorra izan zen urte luzez.

Julio Zesarrek, esaterako, garia ia oparitu egiten zien gehien behar zuten 200.000 hiritarrei. Jakina, gizonezko hiritar libreak ziren onuradunak, behar behar, esklaboek, libertoek eta emakumeek ez zutelako boto eskubiderik. Handik hiru mendetara, Aureliano-ren garaian (K.o. 270-275), 300.000 herritarrek bina ogi jasotzen zituzten doan egunero. Ogiaren bidez botoa erostea ez zen merkea, Italiar penintsulan nahikoa gari ekoitzi ez eta Inperioko hainbat txokotatik inportatu behar zutelako.



Inoizko erromatar zirkurik handiena, hiriburuko *Circo Massimo*, 1913ko ilustrazio batean.

Eta zirkuko ikuskizunak ere garestiak ziren. Soilik sarietan dirutza uzten zuten; koadriga lasterketa bat irabazteagatik 60.000 sestertzio jaso ohi zituzten garaileek. Diokles gidari ezagunak ia 36 milioi sestertzio irabazi omen zituen 42 urterekin erretiratu baino lehen. Baina garestiena obra publikoak ordaintzea zen, eraikinak berak eraikitzea, egokitzea, eta luxuz apaintzea. Iruña-Veleiako zirku aurkitu berria 280 metro luze zen eta 5.000 ikuslerentzako lekua zuen; zirku txikia zen. Tarracokoak, esaterako, 25.000 ikuslerentzako edukiera zuen, eta Italicakoak

80.000rentzat. Erromako *Circo Massimo* Iruña-Veleiako bikoizten zuen luzeran eta 150.000 lagun inguru hartu zitzakeen –Plinio Zaharrak 250.000ko edukiera aipatu arren, egungo historialariek uste dute kopuru hori gehiegizkoa dela–.

“Ogia eta zirkua” lokuzioak ez du gaurkotasunik galdu bi milurtetan, Juvenalek kritikaturakoa gobernuek oraindik ere erabiltzen dutelako biztanleak otzandu edota eskandaluak isilarazteko. Eta askok “zirku” hitza “futbol” hitzarengatik ordezkatzen dute, mezua oraindik eta argiagoa izan dadin. ●



PARAMOUNT PICTURES

Naumakia ezinezkoa

Udazkenean estreinatuko den *Gladiator II* filmaren trailerra ikusgai dago eta hiru minutu eskaseko aurrerapenean dagoeneko akats edo lizentzia historiko bat agerian geratu da. Ridley Scoten filman naumakia edo itsas gudu bat egingo da Koliseoan. Ikuskizun garestia gutzira hirutan egin zen Erromako anfiteatroan, baina filma kokatua dagoen

garaian (K.o. 161-169) ezinezkoa zen joko zelaia urez betetzea, hamarkada batzuk lehenago Domizianok (K.o. 91-96) Koliseoan egokitzen lan batzuk agindu zituelako. Enperadoreak lurpeko galeria sare bat eraikiarazi zuen, hainbat puntutan zuzenean hondarrarekin lotuta zegoena. Handik aurrera ezingo zuten bertan naumakiarik egin. ●